

1.- Erakunde antolatzailea

Donostia Sustapenak (egoitza fiskala: San Roke kalea 120, Etxe Txuri eraikina, 20.009, Donostia; IFZ: A20001681) sustatze helburuekin antolatu du udalerrri mailako zozketa bat (aurrerantzean, "Promozioa"), Instagram, Facebook eta Twitter bidez egingo dena, soilik Gipuzkoan bizi diren adin nagusiko erabiltzaileentzako.

2.- Sare sozialekiko lotura eza

Instagram, Facebook eta Twitterrek ez dute inola ere promozio hau babestu, bermatu edo administratu, eta ez dute harekin loturarik. Emandako informazioa lehiakideen partaidetza kudeatzeko erabiliko da.

3.- Lehiaketaren xedea eta funtzionamendua

Promozio honen, "Tokiko Produktuaren Eguneko bi produktu sortaren zozketa" izenekoaren, asmoa da 2020ko Tokiko Produktuaren Egunean herritarrek parte hartzea sustatzea.

Honela funtzionatuko du promozioak:

- Aipatutako sare sozialetako erabiltzaileei proposatuko zaie #TokikoProduktuarenEgunaZOZKETA traola erabiltzeko.
- Parte hartzaileek nahi bestetan **hartu ahal izango dute parte**, argitalpen ezberdinekin.

4.- Iraupena eta esparrua

Promozioa Donostian egingo da.

Kanpaina 2020ko urriaren 28an hasiko da, 09:00etan, eta 2020ko azaroaren 1ean amaituko, 00:00etan. Aldi horretan bakarrik hartu ahalko da parte.

Donostia Sustapenak eskubidea du lehiaketa aldia atzeratzeko edo luzatzeko, kausa justuren edo ezinbesteko kasuren baten ondorioz, baita hemengo baldintzak eta betekizunak interpretatzekoa ere. Halaber, parte hartzaileek bete beharreko betekizunak zabaldu ahalko ditu.

5.- Parte hartzeko betekizunak

Honako hauek izango dira parte hartzeko betekizunak:

- Bizitokia Gipuzkoan duten 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute, zehaztutako hiru sare sozialetakoren batean egiazko erabiltzaile profil bat dutenek.
- Ezingo dute parte hartu promozioan ezarritako betekizunak betetzen ez dituztenek. Horrez gain, ezingo dute parte hartu Donostia Sustapeneko langileek.
- Parte hartzaileak baztertu egingo dira, baldin eta zalantza badago eskatutakoa betetzen ari ote diren.
- Parte hartzaileen datu pertsonalak beren sare sozialetako profilekoak izango dira, eta irabazleekin bide beretik jarriko da harremanetan.

- Donostia Sustapenak eskubidea du promozioan eta haren betekizunetan aldaketak egiteko, irauten duen bitartean, ondo burutzeko oztoporen bat badago, edo haren garapena hobetzeko asmoarekin.

6.- Irabazlea hautatzea eta saria

Traol hori azaroaren 1eko 00:00etara arte erabili dutenen artean, azaroaren 2an, astelehenean, zozketa bat egingo da, bi sari saskien irabazleak zehazteko. Irabazle bakoitzak saski bat jasoko du.

Parte hartzaileei zenbaki bana jarriko zaie, hurrenkera kronologikoan. Zenbaki batzuk aukeratuko dira, ausaz, eta horiei dagozkienak izango dira irabazleak.

Modu horretan aukeratuko dira irabazleak, baita sorta bakoitzeko ordezkari bat ere. 10 eguneko epean irabazleak erantzuten ez badu, esleitutako sariari uko egiten badio, edo ez baditu betetzen oinarrietan ezarritako betekizunak, saria ordezkari emango zaio, eta hark ere 10 eguneko aldia izango du erantzuteko, baldintza berberetan. Saria ordezkari eskainitakoan, aurreko irabazleak eskubidea galduko du saria erreklamatzeko. Bigarren irabazleak erantzuten ez badu, saria hutsik geldituko da.

Irabazleen izena ofizialki gure webgunean, sare sozialen bitartez eta/edo mezu elektronikoen baten bidez jakinaraziko da.

7.- Erreserbak eta mugak

Ikusiz gero parte hartzailearen batek ez dituela betetzen oinarri hauetan jasotako betekizunak, edo parte hartzeko emandako datuak baliozkoak ez badira, balio gabetzat joko da haren parte hartzea, eta promoziotik automatikoki baztertuko da. Beraz, galduko egingo ditu promozio honetan emandako sarien inguruko eskubide guztiak.

Lehiaketak iraun bitartean inguruabar horietakoren bat egiaztatuz gero, berehala kanporatuko da lehiaketatik, eta saria galduko du, eman bazaio.

Donostia Sustapena ez da inola ere erantzule izango irabazleek emandako datuen batean akatsen bat egoteagatik haiek identifikatu ezin izatetik eratorritakoengatik.

Halaber, Donostia Sustapenak ez du erantzukizunik izango sariak bidaltzeari eragin diezaioketen eta mezularitza enpresari egotzi dakizkiokeen inguruabarrengatik, saria galtzea, kaltetzea, lapurtzea edo beste edozeinengatik.

Donostia Sustapenak eskubidea du egintza juridikoak hasteko lehiaketa manipulatzetaz edo faltsutzetaz jo daitekeen edozer egiten dutenen aurka.

Donostia Sustapena salbuetsita egongo da promozioan parte hartzeko zerbitzuen funtzionamenduaren eskuragarritasunak edo jarraikortasunak aldi baterako huts egin izanagatik sortutako edozein kalte-galeraren erantzukizunetik, erabiltzaileek zerbitzu horiek iruzurrez erabiltzetik eratorritakoenetik, eta, bereziki, baina ez soilik, Interneten bidez parte hartzeko orrien eta erantzun bidalketen sarbideetako akatsenetik.

Donostia Sustapenak eskubidea du aldaketak egiteko, lehiaketa ondo egin dadin, kausa justuren bat edo ezinbesteko kasuren bat badago, eta horien ondorioz ezin bada ondo burutu, oinarri hauetan jasotako moduan.

Donostia Sustapenak eskubidea du lehiaketa aldia atzeratzeko edo luzatzeko, baita legezko oinarri hauek interpretatzeko ere.

Halaber, enpresa antolatzailea salbuetsita geldituko da erantzukizun guztietatik, aipatutako kasuetan, baita saria gozatzean sortu daitezkeen kalte-galeren erantzukizunetik ere.

8.- Datu pertsonalen babesa

Indarrean dagoen datuak babesteko araudiak ezarritakoari jarraituz, jakinarazten da formulario honen bitartez jasotako datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela, eta hura izango da tratamenduaren arduraduna. Informazioa Donostiako Sustapena SA sozietateak kudeatuko du, tratamenduaren eragile izango baita. Tratamenduaren helburua da lehiakideen partaidetza kudeatzea, haiekin harremanetan jartzea, eta komunikatzea "Tokiko Produktuaren Eguneko bi sortaren zozketa" promozioan irabazleak izan direla.

Tratamenduaren zilegitasuna DBEOaren 6.1.b) artikuluan oinarritzen da, tratamendua beharrezkoa baita interesduna parte den kontratu bat egikartzeko (zozketaren oinarriak onartzea); baita DBEOaren 6.1.e) artikuluan ere: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz zeregin bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koaren, Toki Araubidearen Oinarriak ezartzen dituen; eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta DBEOaren 6.1.a) artikulua: ukitutako pertsonaren adostasuna (komunikazio informatiboen kasuan).

Ez da aurreikusi hirugarrenei datuak komunikatuko zaizkienik, legez behartuta egon ezean, ezta nazioarteko datu transferentziak egiterik ere.

Tratamendu honen xede direnen datu pertsonalak gorde egingo dituzte alderdiek, jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizun posibleak zehazteko beharrezko aldi guztian. Aplikagarria izango da artxiboen eta dokumentazioaren araudian xedatutakoa.

Ukitutako pertsonak datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezabatzeko eta datuak babesteko araudiak jasotako beste eskubideak erabili ahal izango dituzte, bidezkoa bada, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuan, helbide honetan: Ijentea kalea 1, 20003, Donostia. Beren eskubideak erabiltzean ez bazaie arreta behar bezala eman, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango dute Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008, Gasteiz. Nolanahi ere, aurretik eta aukeran, harremanetan jarri ahal izango da Donostiako Datuen Babeserako ordezkariarekin: dbo@donostia.eus.

Horrez gain, eskubidea izango du emandako baimena edozein unetan erretiratzeko. Baimena erretiratzeak ze dio eragingo baimena eman aurretik egindako tratamenduaren zilegitasunari.

Eskubidea izango du ere kontrol autoritatearen aurrean erreklamazio bat aurkezteko, ust ebadu bere eskubideak urratu ahal izan direla, bere datu pertsonalen babesari dagokionez.

9.- Iruzurrez erabiltzearen zehapenak

Iruzurtzat jotzen da plataforma edo aplikazio independenteak erabiltzea promozioan ikusgarritasuna edo partaidetza gehiago lortzeko, baita itxuraz gehiegizkoak edo asmo txarrekoak diren jarrerak ere.

Jardunbide horietakoren bat egiaztatuz gero, zozketatik kanpo utziko dira kanpainan baimendu gabeko bideetatik iritsi direla uste dugunak.

Donostia Sustapenak eskubidea du egintza juridikoak hasteko lehiaketa manipulatzetaz edo faltsutzetaz jo daitekeen edozer egiten dutenen aurka.

10.- Oinarriak onartzea

Zozketan parte hartze hutsak berekin dakar oinarri hauek onartzea; beraz, oinarri hauek osorik edo hein batean onartzen ez direla adieraziz gero parte hartzailea zozketatik kanpo utziko da eta, ondorioz, Donostia Sustapenak ez du bete beharko parte hartzaile horrekin hartutako obligazioa.